

FLEXPETZ

FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektua funtziona dezan?**

Gure helburua aurrera eramateko ezin bestekoa da motibazioa. Motibaziorik gabe ezin da lanik egin. Taldea motibatzea denoi dagokigu, baina buru bat egon behar da, bestalde ezin du gehiegikeriaz agindu. Bestela taldea motibatuta egon beharrean behartuta egongo litzateke eta hori ez da gure enpresak nahi duena.

Ekoizpenerako materiala lortzeko, kontaktuak bilatzen arituko gara gu. Kontaktuak garrantzitsuak dira bai produktua egiteko orduan, bai gu publizitateko orduan.



Lan egiteko, guk sareko jarduera burutuko dugu, horrela produktua azkarrago ekoiztuko baita, modu honetan denbora aurreztuko dugu. Ekoizpena amaitzean, produktu guztiek bezala, kalitate-azterketa bat izango dute, gero gure lokalera eramango dugu, ondoren beste informatika dendetara eta frankizietara.

Jendeak gure produktua erabiltzean arazorik badago, guk konpondu egingo dugu. Egia esan gure produktuak prezio altua du erabilera luzekoa delako. Arazorik balego, gure enpresak konponduko luke. Hasieran urte bateko segurua ezartzea pentsatu dugu. Seguru honek fabrikazio akatsak eta bustitzearen akatsak babestuko ditu. Gure produktua barrutik bustitzea ez litzateke normalena izango, baina hau likidoen artean erabiltzen denez gure produktua oso ondo egon beharko litzateke babestuta. Beraz produktua barrutik bustitzea fabrikazio akatsa izango litzateke. Seguru honen prezioa (erabilera pertsonalerako) 7 euro hileko izango litzateke. Frankiziei eskainitako prezioa 3 euro hileko da.

Aurreko adierazpen guztietan esan dugun bezala lehentasuna publizitateak izango du. Gure produktuak hobekuntzak izango ditu denbora aurrera doan heinean.